

KOSTUEN EGITURA

Enpresa baten gastuak ulertzeko eta kudeatzeko funtsezko tresna da kostuen egitura. Honek, enpresaren baliabideak nola banatzen diren, kostuak zertan eragiten duten eta nola murriztu daitezkeen aztertzen laguntzen du. Gainera, kostuen egitura ondo definitzeak hobetzeko aukera ematen du, modu honetan estrategia egokiak erabiliz eta enpresaren gastuak gutxituz.



HASIERAKO INBERTSIOA

Gure makina egiteko eta proiektua aurrera ateratzeko hasierako inbertsio batzuk egon behar dira. Gure kasuan, makineria eta behar ditugun tresnak izango dira, beheko taulan ikus daitezkeen bezala. Inbertsioa guztira 20.920€-koa da. Horrela, prozesua martxan jarri eta gure helburuak lortzeko beharrezko baliabideak izango ditugu.

KONTZEPTUA	KOSTUA
10 Makinak	20.000€
8 Mahaiak	720€
10 pintzel handi	200€
GUZTIRA	20.920€

KOSTUEN BANAKETA

Gure hilabeteko kostuak zehazteko eta argi adierazteko, lehenik eta behin, kostu mota desberdinak identifikatu ditugu eta bi taldetan sailkatu ditugu, kostu finkoak eta kostu aldakorak. Horren ondoren, talde bakoitzeko kostuak zehatz aztertu ditugu.

KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak berdin mantentzen diren kostuak dira, ekoizpen edo jarduerak aldatu arren. Gure kasuan, hainbat kostu finko ditugu beheko taulan ikus daitezkeen bezala. Gure kostu finkoak guztira 6291€-koak izango dira.



KONTZEPTUA	KOSTUA
UGGASA lokala	90€
Mailegua	1.000€

Makina salduko duten dendak	39€
Publizitatea	400€
Webgunea	62€
Lagilearen soldata	1.600€
Gure soldata	2.100€
Almazenaren alkilerria	1.000€
GUZTIRA	6291€

KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak izenak dioten bezela, aldatzen diren gastuak dira. Kostu hauek produktuak edo zerbitzuak gehiago edo gutxiago ekoizten diren neurrian, igo edo jeitsi egiten dira. Makina egiteko kostuak unitateko daude jarrita. Horrez gain, mekanikoaren soldata ere aldakorra izango da eta makinak arazo ezberdinak eduki dezakenez kalkulatu dugu batz bestekoa 30€/h izango litzateke. Guk hilabetean 144 makina saltzea espero dugunez hilabeteko gastuak 82540,8€-koak izango dira.



KONTZEPTUA	KOSTUA
Argindarra	2,2€
Altzairu herdoilgaitza	256€
Polipropilenoa, polikarbonatoa	10€
Sentsoreak, kontrol-txartelak	95€
Motor elektronikoa	80€
Pintura pote txuria	30€
Kableak eta konektoreak	30€
Beira epela	70€
Mekanikoa	30€
GUZTIRA	573,20€

Azkenik, gure hilabete guztiko kostua, hau da, kostu finkoei kostu aldakorrak gehituta, 109.467€-koa izango da.